

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZALDIBARKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2012.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Zaldibarko Udalaren 2012ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak -Udala eta bere sozietate publikoa barne hartzen dituenak- legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, diru-sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta bere Sozietate Publikoaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta 2012ko ekitaldian indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Langileen atalean azpimarratu da 2012ko ekitaldirako onartutako soldata igoserak urratu egiten duela abenduaren 31n 20/2012 Errege Dekretu-Legean jasotako izaera berezi eta apartekoa, defizit publikoa zuzentzeko premiazko neurriei buruzkoa, langileria guztiari ezartzen baitzaio. Gainera, ekaineko hilabeteari dagokion aparteko soldata ez zaio Estatuko Aurrekontu Orokorreari buruzko 2/2012 Legeari egokitzen, oinarritzko ordainsarien % 100 barne hartzen baitu.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du 2012ko ekitaldian argindar horniduraren zerbitzua bidezkoa den kontratazio prozedura baliatuta izapidetu behar zatekeela, publikotasun eta lehia printzipioei loturik.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du udalaren eta bere Sozietate Publikoaren aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 0,6 mila euroan murriztu dutenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, diru-laguntza, kontratazio eta beste hainbat arlotan.

Azkenik, finantza egoerari dagokionez Udalak 2010-2012 aldirako aurrezki garbi positiboa erakutsi duela ondorioztatu da; mailarik gorena 2012ko ekitaldian eskuratu du, batik bat, funtzionamendu gastuekiko diru-sarrera arruntek igoera handiagoa izan dutelako. Nolanahi den ere, Udalak 2012an inbertsioak aurrezki garbiaren bidez ez ezik, Diruzaintza Geldikinarekin ere finantzatu ditu.